

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



1997 URTEA

AURKIBIDEA

0.- SARRERA	4
I.- ZER IZAN BEHAR DU ELGOIBARKO IZARRAK?	
ZEIN DIRA HELBURUAK?	6
1. Hizkuntz komunitatea osatzea:	8
1.1. Definizioa	8
1.2. Zein dira euskaldun osoak	9
1.3. Euskaldun osoen gune sinbolikoa osatu	10
1.4. Euskaldun osoak eta hizkuntz komunitatea	10
1.5. Gero eta euskaldun oso gehiago lortu	11
1.6. Euskaldun osoak eta kargu garrantzitsuak	11
1.7. Euskaldungoaren konpaktazioa	11
1.8. Botere politikoa	12
1.9. Zer da hizkuntz komunitate normalizatua	12
2. Euskararen normalizazioa:	14
2.1. Definizioa	14
2.2. Hiztuna, hizkuntz komunitatea eta hizkuntza	
2.2.1. Hiztuna	14
2.2.2. Hizkuntz komunitatea	15
2.2.3. Hizkuntza	15
3. Normalizazioaren hiru zutabeak: Erabilera, ezagutza eta motibazioa:	
3.1. Euskararen erabilera	17
3.2. Euskararen ezagutza	19
3.2.1. Familia	20
3.2.2. Irakaskuntza	20
3.2.3. Helduen euskalduntze-alfabetatzea	20
3.3. Motibazioa	20
4. Bizitza sozio-kulturala suspertu:	22
4.1. Erabilera	22
4.2. Ezagutza	22
4.3. Motibazioa	22

II.- NOLAKOA IZAN BEHAR DU ELKARTEAK? 24

1. Autonomoa	24
2. Irikia	24
3. Zabala	25
4. Baikorra	25
5. Eleanitza	25
6. Neutrala	25
7. Berdintasunean eraikia	26
8. Integratzailea-Bateratzeilea	27
9. Gardena	27
10. Polpularra	27

III.- NOLAKOA IZAN BEHAR DU ELKARTEKO BAZKIDEAK? 28

1. Kontzientzia linguistikoa	29
2. Konpetentzia linguistikoa	30
3. Koherentzia linguistikoa	30

SARRERA

Eskuartean daukazun txostenak ELGOIBARKO IZARRAren nortasun agiria izan nahi du. Elkartea ondo ezagutzea nahi duenarentzat ezinbesteko erreferentzia. Izan ere, bigarren etapari ekin genionetik sei urte pasa eta gero, Elkarteren helburuak zein diren adierazteko gauza gara. Halaber, sei urteko jardunak eta esperientziak Elkarreak nolakoa izan behar duen ere erakutsi digu. Beraz, sei urteotan ikusi eta ikasitakoaren esperientziatik, begi aurrean daukazun txostena idatzi dugu.

Txostena bi motako irakurlerentzat prestatuta dago:

- . Elkarre barruan lanean dagoen jendearentzat, bere jarduna marko teoriko baten baitan kokatu eta egiten duena zertarako egiten duen jakin dezan.
- . Elkartera hurbilduko den jendearentzat, Elkarrean ezertan hasi aurretik non, zergatik eta zertarako sartzera doan jakin dezan.

Izan ere, horrelako elkarreetan lanean diharduen jendeak askotan zertarako ari den ere ez dakiela iruditzen zaigu. Euskararen aldeko lanean diharduen susmoarekin egoten da jendea, baina euskararen normalizazioa zer den galdetuz gero, oso gutxi izaten da ganorazko erantzuna emateko gauza.

Elkartera hurreratuko den jendeari berriz, zerekin topo egin behar duen erakutsi nahi diogu ezer baino lehen. Nora sartzera doan azaldu ostean, bere aportazioa zeren mesedetan den ahalik eta argien azaltzen ahalegindu behar dugu. Horretarako da txostena.

Alabaina, txostena irakurtzerakoan ez da seguraski dena argia izango. Txostenean zehar izango dira akaso ulertu ezin dituzun gauzak edo azalpen gehiago behar duten aipamenak. Lasai, Elkarrean txostenean esaten denaren lagungarri izango diren esplikazioak emateko desiatzen dagoen jendea aurkituko duzu. Aurrez-aurreko azalpenekin eta txostenaren irakurketa sakonarekin, ziur gaude mezua bere osotasunean jasotzeko gauza izango zarela.

Beraz, txostena irakurtzen hastera zoazen horri, eskerrik asko berau irakurtzeko borondatea erakutsi duzulako eta ea denon probetxurako izaten den. Hala bedi!

ELGOIBARKO IZARRA
Kultur Elkarrea

**ZER IZAN BEHAR DU
ELGOIBARKO IZARRAK?**

**ZEIN DIRA
ELKARTEAREN
HELBURUAK?**

Has gaitezen 1963. urtean sortutako elkarte honen helburuak zein diren ikusten. Izan ere, kalean jendea galdetuz gero Elkartearen helburuak zein diren, 'euskararen aldeko lanean ari dira' baino erantzun zehatzagoa inork gutxi eman ahal izango luke.

Beraz, atal honetan Elkartearen helburuak zein diren ahalik eta zehatzen eta argien azaltzen saiatuko gara. Has gaitezen beraz.

1. HIZKUNTZ KOMUNITATEA OSATZEA:

1.1. Defizizioa:


Elkartearen **helburu nagusia Elgoibarren euskal hizkuntz komunitatea osatzea da**. Egun egoera ez normalean eraikita dagoen hizkuntz komunitetari egitura berria eta normalizatua eman nahi diogu. Horixe da Elkartearen helbururik nagusia.

Baina ikus dezagun euskal hizkuntz komunitatea osatzeak zer esan nahi duen. Hizkuntz komunitate bat pertsonen arteko edozein bilkura (komunitate) izan daiteke: bikote bat komunitate bat da, familia bat ere bai, kuadrila bat, ikastetxe bat, alderdi politiko bat, elkarte bat, e.a.

Aipatu ditugunak herri batean aurki ditzakegun mikro komunitateak dira. Hauen batuketak Elgoibarko hizkuntz komunitatea osatuko dute. Elgoibartarrok 11.300 laguneko hizkuntz komunitatea osatzen dugu gaur egun.

Komunitate hau segun eta zelan eraikitzen edo antolatzen dugun, bere funtzionamendua (hizkuntzari dagokionean ari gara beti ere) era batekoa edo bestekoa izango da.

Ikus dezagun zein den **hizkuntz komunitate baten egitura normalizatua**:



Normala den bezala, erdigunean lurralde horretako hizkuntzan 'konpletoak' direnak jarriko ditugu. Herri batean, momentu historiko konkretu horretan dauden hizkuntz beharrak bertako hizkuntzan gauzatzeko kapaz izan eta hala nahi duten gizon-emakumeek osatuko dute erdigunea. Elgoibarko kasuan euskararentzat AB eta BA (* Ikus Hiztun Tipologiak) direnak jarriko ditugu komunitatearen erdigunean. Hauei **euskaldun osoak** deituko diegu aurrerantzean.

1.2. Baina, zein dira euskaldun osoak?

Euskaldun osoak hizkuntzaren hiru zutabeak (ERABILERA + EZAGUTZA + MOTIBAZIOA) garatu eta hiruren arteko komunikazioa martxan jartzen duten pertsonak dira. Euskaldun osoa ez da euskara asko jakin baina erabiltzen ez duena. Euskaldun osoa ez da bere hizkuntz behar guztiak bete ahal izateko erderara jo behar izaten duena. Euskaldun osoa ez da bihotzez euskalduna bai baina euskara justu-justu ulertzen duena. Euskaldun osoa izateko, euskara ezagutu, erabili eta maitatu egin behar da.

Hizkuntz komunitatearen hurrengo mailan, arrazoi batengatik edo bestearengatik, hizkuntzaren ikaskuntza prozesua erdibidean laga dutenak izango ditugu. Elgoibarko kasuan, euskararentzat A eta B direnak (* Ikus hiztun tipologiak).

Amaitzeko, hizkuntz komunitatearen periferian, baina inoiz ere ez kanpoan, euskararentzat Ø direnak dauzkagu, erdaldunak bezala ezagutzen ditugunak.

Hauxe da edozein herri normalizatutan ezagutzen den hizkuntz komunitatearen egitura. Baina, zer gertatzen da egoera ez-normalean bizi garen herrietan? Komunitatearen erdigunean bertako hizkuntzan Ø, A edo B direnak jartzen direla, honek bertako hizkuntzaren eta hizkuntz komunitatearen garapenarentzat dakarren zamarekin. Komunitatearen erdigunean AB eta BA ez direnak jartzen badira, hizkuntz komunitate honen behar liguistikoak beste hizkuntza batean gauzatzeko dira, gazteleraz gure kasuan.

Beraz, Elkartearen helburu nagusia, hizkuntz komunitate txikietatik hasi eta Elgoibarko hizkuntz komunitatean amaituz, goian aipatu dugun egitura bultzatu eta berreskuratzea izango da.

(* HIZTUN TIPOLOGIAK:

- . **AB:** Euskaldun zahar alfabetatuak.
- . **BA:** Euskaldun berri bertakotuak: euskaltegian ikasitakoa ezezik kalekoa ere ikasi dutenak.
- . **A:** Euskaldun zahar alfabetatu gabeak.
- . **B:** Euskaldun berri bertakotu gabeak: euskaltegian ikasitakoa bakarrik dakitena.
- . **Ø:** Erdaldunak.

Baina nola eraikitzen da hizkuntz komunitate normalizatu bat? Formula magikorik ez dagoeenez, bideak zein diren aipatzeari ekingo diogu:

1.3. Euskaldun osoen gune sinbolikoa osatu:

Euskaldun osoak zer diren azaldu dugunez, lehen pausoa Elgoibarko euskaldun osoak identifikatu eta biltzea da. Elkartearen bueltan bildu behar ditugu euskararen eta euskaldunon etorkizuna ziurtatzeko. Izan ere, euskaldun osoak dira euskarari gehien eman diezaioketenak. Eurentzat euskara garrantzitsua denez, euskararentzat eurak garrantzitsuak dira.

Elgoibarren euskararen alde lan egiteko Elgoibarko euskaldun osoak biltzea da lehen urratsa. Euskaldun osoek erabaki behar dute zein izan behar duen euskararen aldeko dinamika.

Arazo eta ezberdintasun ideologiko guztien gainetik euskararen eta euskaldunon etorkizunaren alde lan egiteko prest dagoen euskaldun osoen gunea izatea lortu behar du ELGOIBARKO IZARRAK. Hoberik ez dagoen bitartean, Elkartek izan beharko du euskaldun osoen gune sinbolikoa.

Gune sinboliko honetan hiru 'k'-k uztartuko dituen jendea behar dugu: Kontzientzia, konpetentzia eta koherentzia linguistikoa.

KONTZIENTZIA: Honi buruz gauza asko esan eta idatzi bada ere, guretzat Elgoibarren kontzientzia linguistikoa edukitzea euskaldun osoa izatea da. Ez gehiago eta ez gutxiago.

KONPETENTZIA: Euskara dagoen egoera minorizatutik irteteko ezagupidea izatea da konpetentzia linguistikoa. Normalizaziorako urratsak eta bideak zein diren ikasi eta ezagutu behar ditugu. Nahi izatearekin ez da nahikoa, konpetenteak izan behar dugu eta lanari etekina ateratzeko gauza izan behar dugu.

KOHERENTZIA: Euskaldun osoak bagara eta egoerari buelta nola eman baldin badakigu, egin eta eragitea izango da hurrengo pausoa. Koherenteak izan behar dugu eta gurea den ardura ezin dugu beste inoren esku laga. Guk 'egin' behar dugu gure esku dagoena, eta gainera besteiei 'eragin' behar diegu eurek ere egin eta eragin dezaten. Beti egilez eta eragilez osaturiko sare luze eta zabal bat osatzeko helburuarekin.

1.4. Euskaldun osoak eta hizkuntz komunitatea:

Bi kontzeptu garrantzitsuren aurrean gaude.

. **Hizkuntz komunitateak euskaldun osoak behar ditu:** Hizkuntz komunitate normalizatuak egituratzeko, handiak nahiz txikiak izan (Elkarte bat edo herri bat), euskaldun osoak nahi-taezkoak direla aipatu dugu lehen. Beraz, hizkuntz komunitateek euskaldun osoen beharra daukate, bestela ezin baita hizkuntz komunitate normalizaturik egituratu. Baina, beharra alde-rantziz ere ematen da.

. **Euskaldun osoek hizkuntz komunitatea behar dute:** Euskaldun osoek euskaldun izateko nahi hori asebetetzen lagunduko dien hizkuntz komunitate egituratu eta normalizatu behar dute. Bestela, hizkuntz komunitate ez-normaletan euskaldun osoek ez dute zer eginik, ito egiten dira. Euskaldun osoak erdigunetik periferiara pasatzen dira eta periferian ez daukate indarrak eta eraginik eurek nahi dutena lortzeko. Gainera, euskaldun osoak periferian badau-

de, batak bestearen erreferentzia galtzen dute, ez dute gune sinbolikorik osatzen eta kasu askotan, egoera honen eraginez, euskaldun oso izateari lagatzen diote.

1.5. Gero eta euskaldun oso gehiago lortu:

Elgoibarren euskaldun osoak direnak bildu behar direla aipatu dugu arestian. Baina egun daudenekin ez da nahikoa. Etengabeko produkzioa izan behar du euskaldun osoena. Euskara etxean jasotzen dutenak eskolaren bidez alfabetatu behar ditugu, ikaskuntza naturala eta kulturala burutuz. Euskara nagusitan jasotzen hasten direnei berriz, euskaltegian jasotzen duten ikaskuntza kulturala, gizartean praktikan jarritz ibilbide naturala ere burutu dezaten lagundu behar diegu. Hauek ikaskuntza kulturala hasieran eta naturala gero burutuko dute.

Beraz, euskaldun osoak bi norabidetan lor genitzake:

- . Euskara ama hizkuntza bezala jaso eta gero ibilbide kulturala burutuz.
- . Euskara kulturalki nagusitan jaso eta ibilbide naturala eginez.

Zenbat eta euskaldun oso gehiago izan, orduan eta aukera gehiago izango dugu guk nahi ditugun hizkuntz komunitateak eraikitzeko.

1.6. Euskaldun osoak kargu garrantzitsuetan - Kargu garrantzitsuetan euskaldun osoak:

Ez da nahikoa Elgoibarren euskaldun oso mordo bat izatearekin. Euskaldun oso hauei euren tokia bilatu behar diegu Elgoibarko gizartean. Euskaldun osoen tokia zein den azaldu behar diegu gizarteari.

Bi ideia azpimarratu nahi ditugu zeregin honetan:

- . Elgoibarko euskaldun osoek herriko kargu garrantzitsuetan egon behar dute. Euskaldun osoek garrantzizko postuetan egon behar dute, eurak hor ipinita bakarrik lortuko baitugu hizkuntz komunitate egituratuak eraikitzea.
- . Bestalde, kargu garrantzitsuetan dauden pertsonak euskaldun osoak izateko ahalegina egin behar dugu. Arrazoiak zein diren azalduz, euskaldun osoak izateko gonbitea luzatu behar diegu.

1.7. Euskaldungoaren konpaktazioa:

Euskaldun osoek hizkuntz komunitatearen gune sinbolikoa osatu ostean, gune sinboliko honen bueltan euskaldungoaren konpaktazioa lortu behar dugu. Euskaldungoa, euskara ardatz nagusi dela, helburu eta filosofia amankomun baten bueltan konpaktatzea ezinbestekoa izango da euskararen aldeko jardunak indarra eta eragina izan dezan.

Konpaktazio hau maila ezberdinetan eman daiteke:

- . Herri mailako konpaktazioa.
- . Mikro komunitateen kopaktazioa.

Lehenengoa Elkartearen bueltan eraiki nahi dugun konpaktazioa da. Euskaldukoa Elkartearen bueltan bildu nahi dugu, bere helburu eta filosofietan bat egin ondoren, hauek gauzatzeko ahallegina egiteko denon artean.

Bigarrena, elkarte, ikastetxe, erakunde edo entitate bakoitzean lortu behar dugun konpaktazioa da. Herri mailako konpaktazioa lortzeko ezinbestekoa da euskaldukoa aurrez mikro-komunitateetan ere konpaktatzea.

1.8. Botere politikoa hizkuntz komunitatearen zerbitzura:

Elgoibarko botere politikoak euskal hizkuntz komunitatearen zerbitzura egon behar du. Baina hau ez da gure kapritxoa, alkate eta zinegotzien ardura eta erantzunkizuna baizik. Elgoibarko euskal hizkuntz komunitateak exijitzen dien erantzunkizuna da. Ez dago arrazoirik guk nahi dugun hizkuntz komunitateari pegarik jartzeko, traba linguistikorik ez behintzat. Beraz, Udala eta alkate-zinegotziak gure jardunaren zerbitzura jarri behar ditugu. Politika guztien gaintik euskararen eta euskalduko etorkizuna dago jokoan eta hori ziurtatuko diguten agintariak eta legeak behar ditugu.

1.9. Hizkuntz komunitate normalizatua zer den azaldu:

Baina Elgoibarko hizkuntz komunitate egituratua ezin dugu bi egunetan eraiki. Izan ere, gaur egun desegituratuta dauden Elgoibarko hizkuntz komunitateak egituratzea, urte asko eta neke dexente emango digun lana da. Zorionez gero eta mikro komunitate gehiago dira behar bezala eraikitzen hasi direnak, baina oraindik aje handiak ezagutu beharko ditugu.

Beraz, esplikatzen egin behar dugu zer den guk egin nahi duguna. Azaldu egin behar dugu guk nahi duguna munduko herri normalizatu guztiek dutena dela. Eskatzen eta exijitzen duguna, berez naturalki zor zaiguna dela. Nazio linguistiko naturalei estatu politiko artifizialek kendutako zerbaitek berreskuratu nahi dugula adierazi behar dugu. Euskararen nazio linguistikoarentzat, euskararen herriarentzat, Euskal Herriarentzat.

Eta azalpen hauek herri osoari eman behar dizkiogu:

- . Hasi euskaldun osoekin hasiko gara, euren garrantzia eta funtzioa zein den adierazteko.
- . Gero, A eta B direnekin egon behar dugu AB eta BA izateko gonbitea luzatzeko. Eurak ere euskaldun osoak izateko eskubidea dute eta horrek zer esan nahi duen adierazi behar diegu.
- . Azkenik, baina ez garrantzia gutxiagorekin, erdaldunengana jo behar dugu. Ahal den kasuetan B eta BA norabidean jarri nahi ditugula ikusarazi behar diegu. Eta eurek ezin

duen kasuetan, seme-alabei bideak irekitzeko eskatuko diegu; gonbitea herri honen etorkizunean parte izateko txartela da, eurek lortu ez duten integrazioa euren seme-alabek lordezaten.

Beraz, Elgoibarren euskal hizkuntz komunitate normalizatua eraikitzea da Elkartearen helbururik nagusiena. Alabaina, helburu nagusi honen azpian badaude beste helburu operatibo batzuk. Ikus dezagun zein diren:

2. EUSKARAREN NORMALIZAZIOA:

2.1. Definizioa:

Zenbat aldiz erabiltzen ditugu bi hitz hauek? Zenbaten ahotik irteten dira zorioneko bi hitz ponpoxo hauek?

Baina, bi berba hauek ahoskatzen ditugunean, ba al dakigu zer esaten ari garen? Edota, denok gauza bera al daukagu buruan euskararen normalizazioa aipatzen dugunean?

Gure zalantzak ditugunez, goazen ikustera ELGOIBARKO IZARRArentzat zer esan nahi duen euskararen normalizazioak.

Normalizazioa hiru arlotan aztertuko dugu, hizkuntzaren gaia aztertzen dugun guztietan kontutan izan behar ditugun hiru elementuak aztertuz hain zuzen ere: Hiztuna, hizkuntz komunitatea eta hizkuntza.

2.2. HIZTUNA, HIZKUNTZ KOMUNITATEA ETA HIZKUNTZA:

Hiru elementu hauek lotuta daude eta aurrerantzean hirurak aipatuko ditugu hizkuntzei buruz berba egin behar dugunean.

2.2.1. HIZTUNA:

Kopurua, populazioarekiko proportzioa, hiztun horien hizkuntz ezagutza, joera eta aurriritzi linguistikoa, eta abar dira hiztunak aztenterakoan kontutan hartu behar duguna.

Hiztunei dagokienean honako baldintza hauek bete behar dira normalizazioa lortu dela esateko:

- . A/O eta AB/O tipologiek ez dute inolako hizkuntz arazorik izan behar. (AB/O: euskaldun zahar alfabetatu gabea, erdararik ez dakiena // AB/O: euskaldun zahar alfabetatua, erdararik ez dakiena)
- . Hitztun tipologiaren optimizaziorantz jo behar dugu:
 - . A-AB : Euskaldun zaharrak alfabetatu. Ikaskuntza kulturala.
 - . B-BA : Euskaldun berriak bertakotu. Ikaskuntza natuarala.
 - . O-B : Erdaldunak euskaraz ikasten hasi. Ikaskuntza kulturala.

Hitztun bakoitzak, dagoen tokian dagoela, hurrengo tipologiarantz abiatu behar du, beti ere euskararen ikaskuntza prozesua burutzeko helburuarekin.

. Azkenik, eta norbaitek kontrakoa pentsa badezake ere, AB/O tipologia beharrezkoa da. Eurak izango dira bihotzaren bihotza, euskaldun osoen bihotza. Tipologia hau da euskararentzat dena emateaz gain, euskaraz bakarrik eman dezaketenak. Beste hizkuntzarik ezagutzen ez duten euskaldun zahar alfabetatuak (AB/O) beharrezkoak ditugu, eta inork

ez du pentsatu behar besteak baino gutxiago direnik. Izan ere, munduan gehien ikus dezakegun tipologia berau da.

2.2.2. HIZKUNTZ KOMUNITATEA:

Azter dezagun hirukiaren bigarren elementua. Orain artean hizkuntz arazoei buruz berba egi-terakoan ez zen hizkuntz komunitatea kontutan hartzen, hiztuna eta hizkuntza izaten ziren aztertzen ziren bi elementuak. Aurrerantzean bi elementu hauek lotzen dituen hizkuntz komu-nitatea ere begibistan izan behar dugu.

Izan ere, hiztun bat ez da ezer bera bakarrik, beti hizkuntz komunitate bateko parte da eta hiz-kuntz komunitate horren menpe dago. Bestalde, hizkuntzari dagokionean ere, hizkuntza bat ez da ezer hizkuntza horren eskubideak eta aukerak garatu eta gauzatuko dituen hizkuntz komu-nitaterik ez badago. Azken finean, hizkuntza bat hil egiten da erabiliko duen hizkuntz komu-nitaterik ez badago.

Hizkuntz komunitatearen zentzuaz jabetu garenez, hizkuntz komunitate normalizatua zer den jakitea falta zaigu. Lehen ere sakon aztertu dugu hizkuntz komunitate bat zer den eta nola egitu-ratu behar den normalizatua izateko. Ez gara berriz azaltzen hasiko.

2.2.3. HIZKUNTZA:

Eta maitzeko, hirukiaren hirugarren osagaia aztertuko dugu: Hizkuntza.

Era askotako aurriritzi liguistikoak atzean lagata, hizkuntza guztien eskubide naturala onartze-ko garaia da. Hizkuntza guztiek behar dute lurralde bat (eta lurralde guztiek hizkuntza bat) eta bere aukera guztiak aprobetxatuko dituen hizkuntz komunitate bat. Eta hau ezin dugu zalantzan jarri, inongo eskubide pertsonal eta politikoren aurretik, hizkuntza guztiei zor zaien eskubide naturala baitago. Ekologia hain modan dagoen garai honetan, komeni zaigu denoi hizkuntz ekologiari ere tokia egiten hastea.

Elgoibarren dauden hizkuntz behar guztiak (momentu historiko bakoitzean daudenak, hauek aldatzen joaten baitira gizartearekin batera) euskaraz bete behar dira. Elgoibarren dauden fun-tzio linguistikoak euskaraz betetzea da, hizkuntzari dagokionean, normalizaioa lortzea. Horixe da lortu nahi duguna.

Baina, gai hau ikutzen denean, galdera maltzur bat irteten da sarritan: Euskaraz bakarrik? Eta gaztelerarekin zer gertatu behar du? Elebakartasunaren alde al zaudete?

Galdera honi orain erantzutea arriskutsua izan daiteke, izan ere oso urruti ikusten den helburu bat baita. Beraz, oraingoz gure nahia Elgoibarko hizkuntz funtzioak euskaraz ere betetzea da, bakarrik edo besteren batekin eztabaidatzen hasi gabe. Hizkuntz funtzioak euskaraz ere bete-zea lortzen dugunean, orduan ikusiko dugu zer den euskarari eta euskaldunoi komeni zaiguna.

Halere, normalena nazio linguistiko bakoitzean hizkuntza bat egotea da. Izan ere, elebitasuna hizkuntza batetik besterako ordezkapenean izaten den une bat baino ez da, momentuko ego-

era linguistiko bat alegia. Elebitasuna ez da inoiz hizkuntz egoera egonkor eta iraunkor baten adierazgarri. Gure nahia epe ertain batean (30 urte barru?) Elgoibarren gehienok euskaldunak izatea da, eta hau lortzen dugun egunean galdera horiek euren zentzua galduko dutelakoan gaude.

Gainera, konturatu al zarete euskararen eta gaztelaren artean sortu nahi den lehia hau zein desorekatua eta maltzurra den? Euskararen Herritik euskara desagertzen bada, non hitzegingo da? Inon ere ez! Aldiz, gaztelera Euskal Herritik desagertzen bada ere, ba al dakizue beste 500 milioi lagunek lasai asko hitzegiten segituko dutela euren lurraldetan?

Beraz, eta amaitzeko, gure nahia hiztun eleanitzek osatutako hizkuntz komunitate euskalduna osatzea da. Jendeak berak nahi beste hizkuntz ezagutuko ditu (gaztelera barne), baina herriaren 'funtzionamendu' nagusia euskaraz izango da.

3. EUSKARAREN HIRU ZUTABEAK SUSPERTZEA: ERABILERA, EZAGUTZA ETA MOTIBAZIOA:

Euskararen bizitza eta euskaldunon geroa bermatzeko parametroak dira. Elgoibarren euskararen erabilera, ezagutza eta motibazioa suspertu behar ditugu.

Ikus dezagun zer esan nahi duen honek Elgoibarko kasuan:


3.1. EUSKARAREN ERABILERA:

Zer da? Elgoibarren egun dauden hizkuntz funtzioetan euskara erabiltzea da; funtzio horietan euskara praktikan jartzea izango litzateke. Funtzioak zein diren? Familia, lagunartea, irakaskuntza, lan-mundua, zerbitzuak, merkataritza,...

Hizkuntzaren erabilera bi eratakoa izan daiteke:

- . Erabilera naturala: automatikoki, hizkuntzaren barne katramilez ohartu gabe.
- . Kulturala: Hizkuntzaren mekanismoez ere ohartuta.

Elgoibarko hizkuntz funtzioak aztertzen hasi aurretik, ikus dezagun zein diren hizkuntzaren funtzioak:



Hizkuntza baten estatus soziala edo prestigioa, hizkuntza horrek betetzen dituen funtzioen araberakoa da. Zenbat eta funtzio gehiago bete, orduan eta prestigio handiagoa izango du.

Baina prestigioa alde batera lagata, badago gutxieneko maila bat (bere bizitza ziurtatzeko) hizkuntzek bete behar dutena. Eta hori funtzio nazionala da, funtzio nazionala betetzen ez duen hizkuntza heriotzera kondenatuta dago.

Funtzioen lorpena behetik gorako lana dela pentsatuta gabiltzanez (goitik beherako lorpenen laguntzarekin beti ere) gure zeregina Elgoibarren funtzio lokala arte dauden mailak betetzea izango da. Herri ezberdinek funtzio lokala artekoa lortzen badugu, funtzio nazionala berez etorriko da. Euskal Herria horixe bata: Euskal herriek osatutako herria.

Eta gure lana euskararen funtzioak berreskuratzea denez, hasi IDENTITATE funtziotik hasiko gara. Elgoibartarron identitateko hizkuntza euskara izatea lortu behar dugu, 'ni euskalduna naiz' esatearekin bakarrik ez baitugu ezer lortzen. Identitate funtzioa zein hizkuntzak betetzen duen jakiteko, oso ariketa sinplea egin behar da: lo gaudenean ametsetako hizkuntza zein den jakitea nahikoa da gure identitate hizkuntza zein den ezagutzeko. Beraz, elgoibartarrok euskaraz amestea lortu behar dugu, euskara bera elgoibartarron amesgaizto izan aurretik.

Elgoibartarrentzat euskarak komunikazio tresna bat baino gehiago izan behar du. Gure izaeraren/identitatearen adierazgarri nagusia izan behar du, bai euskaldunona eta bai Euskal Herriarena.

Identitate funtzioa berreskuratzen badugu, FAMILIA funtzioa izango da hurrengo pausoa. Hizkuntz transmisioa ziurtatu behar dugu, gurasoetatik seme-alabenganako hizkuntz transmisioa. Bestalde, guraso erdaldunen kasuan, ikastetxeek hartu behar dute haurrak euskalduntzearen ardura. Gure hurrean daudenekin, guk gehien maite ditugunekin euskaraz jardutea lortu behar dugu. Euskal familiak lortu behar ditugu. Familia izan da euskararen gordelekua historian zehar eta familiaren funtzioa (linguistikoki ari gara) berreskuratu behar dugu. Familia funtzioa diogunean egun ematen den fenomeno bati amaiera eman beharko diogu: haurrei eta aiton-amonei bakarrik euskaraz egitearena.

Ondoren, LAGUNARTEA ETA FUNTZIO PROFESIONALA dauzkagu. Lana ere euskaraz egitea lortu behar dugu. Baina ez irakasleek bakarrik! Elgoibarko langile guztion laneko hizkuntza izatea lortu behar dugu. Lanean zortzi ordu egiten ditugula kontutan izanda, eta lanean sortzen den harreman sarea aintzakotzat hartuz gero, laneko hizkuntzak berebiziko garrantzia hartzen duela konturatuko gara. Lagunartea da atal honetako bigarren partea. Dударik ez lagunartean garrantzia handia duela gaurko gizartean. Honen garrantziaz jabetuta, esparru honetan euskararen erabilera suspertzen ahaleginduko gara, lagunekin euskaraz jarduteko ohitura sotuz bategatik, eta euskararen bidez lagun berriak egiteaz bestetik .

Bukatzeko, FUNTZIO LOKALA daukagu. Hemen Elgoibarko esparru ezberdinak hartuko ditugu, azken finean Elgoibarren dauden hizkuntz funtzio guztiak harrapatu behar baititugu. Funtzio lokalean, arestian azaldu bezala, administrazioa, irakaskuntza, zerbitzuak, aisialdia, ... dauzkagu.

Gure lana funtzio hauetan euskararen erabilera suspertzea izango da. Gaur egun Elgoibarren dauden erabilera datuak hobetzeko etengabeko ahaleginean jardun behar dugu.

Elgoibarren gaztelera ez dakien batek euskaraz bizitzeko oztoporik ez izatea da lortu behar duguna. Euskarazko harreman sarea egituratu behar ditugu poliki-poliki euskaraz bizi ahal izateko.

3.2. EUSKARAREN EZAGUTZA:

Zer da? Euskararen funtzionamendua jasotzeko gaitasuna eta prozesua dela esan dezakegu. Ezagutzaren kasuan ere, bi maila bereiztu behar ditugu:

- . Ezagutza naturala: sei urteko haur batek edota inoiz eskolara joan ez den baserritar batek ezagutzen duten euskara.
- . Ezagutza kulturala: Eskolaren bidez euskararen ezagutza naturalari ezagutza kulturala gehitu diona: gramatika, aditza...

Batzuek ezagutza naturaletik hasi eta kulturalarekin segitzen dute (AB) eta beste batzuek, kulturalarekin hasi eta naturalarekin amaitzen (BA).

Gure zeregina elgoibartarrek hizkuntzaren ezagutza prozesu osoa burutzea da. Nahiz norabide batean, nahiz bestean. Beraz, tipo linguistikoen optimizazioa izango da gure helburuetariko bat. Bakoitza dagoen puntutik abiatuta ezagutza prozesuan aurrera egitea izango da optimizazioa.

Hala ere, ezagutzari buruz ari garenean, gauza bat oso argi izan behar dugu:

- . Ezagutzaren kantitatea eta kalitatea.

Orain artean Elgoibarren zenbat euskaldun dauden esatera mugatu izan gara, %56a euskalduna dela, %14a ia-euskalduna, haurren artean % 70ak euskaraz dakiela, gazteen artean ere %53a dela euskaraz dakiena eta abar. Baina noiz erreparatu behar diogu euskararen kalitateari? Mendizaleen artean oso ezagunak diren bi anaietariko bati irakurtzen genion behin, haur eta gaztetxoek euskara kalitateak kezkatzen zuela, oso kalitate eskasa somatzen zuela gehituz. Aproba bezala, gure gurasoen (60 urte ingurukoena) eta gure (30 urtekoena) euskara kalitatea konparatzeko adierazten zuen. Jauzi handia dagoela zion. Gero, gure eta gaurko haurren euskara kalitatea konparatzeko. Hemen ere dexenteko jauzia ikusten zuen. Gure gurasoen eta gaurko haurren euskara kalitatea alderatzen baditugu, bi belaunalditan euskararen kalitateak nabarmen behera egin duela ikusten du. Euskararen kalitatea jaisten ari dela zioen.

Kalitatearen jaisteari buruz ari garenean, ezagutza naturalari buruz ari gara. Izan ere gaurko haur eta gaztetxoek euren aiton-amonek baino ezagutza kulturala hobea baitute. Gure aiton-amonek ez zuten zoritxarrez ikasketak euskaraz egiteko suerterik izan (batzuek ez euskaraz eta ez gaztekeraz!).

Beraz, euskara ezagutzaren kantitatea eta kalitatea zaindu beharko ditugu.

Euskararen ezagutza suspertzeko hiru esparruotan lan egin beharko dugu batez ere:

- . Familia.
- . Irakaskuntza.
- . Helduen euskalduntze-alfabetatzea.

Ikus dezagun zer den esparru bakoitzean egin behar duguna:

3.2.1. FAMILIA:

Familia hizkuntz trasmisioaren erdigunean jarri behar dugu. Izan ere, gurasoengandik jasotzen dugun hizkuntzak berebiziko garrantzia dauka geroari begira. Guraso euskaldunak hizkuntz trasmisioaren garrantziaz jabetu behar ditugu.

3.2.2. IRAKASKUNTZA:

Irakaskuntzak ere izugarrizko garrantzia dauka. Bai DLHko urteak eta bai ertainetakoak ere oso garrantzitsuak dira elgoibartarron euskara ezagutzari dagokionean. Unibertsitatea gure lan esparrutik kanpo geratuko da. Elgoibarko haur eta gazte gehienak herrian ikasten dutela jakinda, irakaskuntzak lehentasuna hartzen du euskararen ezagutza suspertzeko orduan.

Irakaskuntzaren garrantziaz jabetzeko datu bat baino ez: ikasketak gazteleraz egin dituztenen artetik, zenbatek izan du euskara ondo ikasteko suertea? Gaztelerazko irakaskuntzaren ondorioak egun 35 urteko gora dutenak sufritzen ari dira. Adin franja horretatik gora, zenbat euskaldun oso dago?

3.2.3. HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA:

Esan bezala, Elgoibarren zoritxarrez helduen artean jende asko dago euskaraz ez dakiena edota euskaraz alfabetatu gabe dagoena. Elgoibartar hauek euskalduntzeari eta alfabetatzeari merezi duen besteko garrantzia eman behar diogu. Euskaltegien lanak ez du bere osotasunean helburua betetzen eta gizarteak izan behar du euskaltegiek hasitako lanari bukaera eman behar diona. Esparru hau ezin dugu euskaltegien eskuetan bakarrik laga.

3.3. EUSKARAREN MOTIBAZIOA:

Zer da? Orokorki hartuta, hizkuntza ikastera eta hizkuntza horretan mantentzera eragiten duen arrazoia, interesa,... da. Motibazioa ere naturala eta kulturala izan daiteke. Naturala edo berezkoa oharkabea, pentsatu gabe eragiten duena da; haurren kasua, adibidez. Kulturala, berriz, ohartuki, pentsatuz, arrazoituz jokatzen denean gertatzen da: arrazoi edo motibazio politikoa, ekonomikoa, pragmatikoa,... izan daiteke.

Euskaldun izatearen eta euskaraz bizitzearen poza eta ilusioa berpiztu behar ditugu Elgoibarren. Euskarak bizia emango digu guk berari bizia eskaintzen badiogu. Guretzat ari garela ohartu behar dugu, guretzat eta mundu guztiarentzat. Ez da gutxi batzuen kapritxo erromantikoa, Elgoibarko errealitatea berreskuratu nahi dugu. Historiari eta etorkizunari errespetua diogulako, zor diogulako.

Eta motibazio hau esparru ezberdinak landuz berreskuratu behar dugu. Baina, nola?:

- . Elgoibarko oroimen historikoa berreskuratuz: Elgoibarko euskararen eta Elgoibarko historia berreskuratuz, ohitura zaharrak, ...
- . Belaunaldien arteko harremanak landuz.
- . Herri giroa eta baserri giroa uztartuz.
- . Bizitzaren alderdi ludikoa landuz. Jaiari behar duen lekua emanaz. Jaiak bizitza behar dute, bizitzak jai behar duen neurri berean.
- . Beste herrietako kulturak ezagutzuz eta maitatuz.

Azken finean euskarari eta euskaldunoi zor zaiguna errekupearatu nahi dugu. Euskarari lurralde bat zor zaiolako eta Euskararen Herriak hizkuntza bat behar duelako, euskaldunon bidez bere osotasuna lor dezan, munduko hizkuntza guztiei opa diegun gauza bera hain zuzen ere.

4. EUSKARAZ ETA EUSKARARENTZAT ERAIKITAKO BIZITZA SOZIO-KULTURALA SUSPERTZEA:

Atal honetan Elkartearen azken helburua landuko dugu: KULTUR SUSTAPENA.

ELGOIBARKO IZARRAK, 1963. urtean sortu zenean, batez ere helburu bat zuen: Elgoibarren euskal kulturaren aldeko jarduerak antolatzea, euskal kultura berpiztea. Izan ere, orduko egoera oraingoarekin konparatuz gero oso bestelakoa zen, eta Elkartearen helburu nagusia euskal kultura indartzea zen.

Urteetan zehar euskal kulturarekin zerikusia zuen hamaika ekimen antolatu zituen Elkartek. Kultur egitasmoen bidez Elgoibarren euskal kutsua zuen beste giro bat berpiztea lortu zuen. Elkartearen lehen etapan, beraz, euskal kulturaren sustapena izan zen zeregin garrantzitsua.

Orain arte landu eta aztertu ditugun helburuak euskararen normalizazioaren esparruan koka genitzake. Bigarren etapan, lehenengoan ez bezala, euskararen normalizazioari garrantzia gehiago emanez hasi garela esan dezakegu. Hizkuntzaren normalizazio prozesua martxan jartzeko ahaleginetan jardun dugu batez ere.

Baina euskararen normalizazioak osagarria izango duen kultur proiektu bat behar du bere albon. Hizkuntza bera ezezik, euskal kultura ere suspertu eta indartu behar dugu eta proiektu ganorazko eta iraunkorra prestatzea eta gauzatzea izango Elkartearen helburu garrantzitsu bat.

Kultur proiektua idazten hasi aurretik honako hau izan behar dugu kontutan: Normalizazio ahaleginean aztertu ditugun hiru zutabeak hartu behar ditugu kontutan hemen ere. Kulturaren erabilera, ezagutza eta motibazioa hain zuzen ere.

Ikus dezagun bakoitzean zer den landu behar duguna:

4.1. ERABILERA: Kulturaren arloan euskararen erabilera landuko dugu. Kultura erabili egin behar dugu. Horretarako hitzaldiak, mahainguruak, ikastaroak, tailerrak-eskolak,... antolatuko ditugu.

4.2. EZAGUTZA: Hemen kultur esparruaren baitan ezagutza landuko dugu. Ikerketak, bekak, Euskal Herriaren eta euskararen historia eta beste herrietako kulturen ezagutza landuko dugu.

4.3. MOTIBAZIOA: Azkenik, kulturaren alderdi ludikoa eta motibagarria daukagu. Kulturaren bitartez bizitza eta jaia uztartu nahi ditugu, jaiak, beste herriekiko harremanak, ikuskizunak, ohitura zaharrak eta antzerakoak landuz.

**NOLAKOA
IZAN BEHAR DU
ELGOIBARKO IZARRAK?**

Aurreko atalean ELGOIBARKO IZARRAK zer nahi duen eta bere helburuak zein diren azaldu dugu. Baina nolakoa izan behar du helburu hauek bete nahi dituen elkarte batek? Nolakoa izan behar du ELGOIBARKO IZARRAK arestian aipatutako helburuak lortu eta bere filosofia herrian zabaltzeko?

Ezertan hasi aurretik, ELGOIBARKO IZARRA bazkidez osaturiko kultur elkarte bat dela gogoratu behar dugu. Norbaitek hau zergatik gogorarazten dugun galde badezake ere, euskararen alde egiteko beste hamaika formula edo era ere egon daitezkeela gogorarazi nahi dugu. Elgoibarren kultur elkartearen formula erabaki zen hasieran, eta bigarren etapako ere ez genuen aldaketaren beharrik somatu.

Beraz, Elkartearen jabeak eta erantzuleak bazkideak dira. Eta horregatik hain zuzen ere, bazkideak dira gurea bezalako elkarte batek duen kapitalik garrantzitsuena. Bazkideen kantitatean eta kalitatean oinarritzen da horrelako elkarte baten etorkizuna.

Nolakoa izan behar du ELGOIBARKO IZARRAK bazkideen kantitateak eta kalitateak gora egin dezan? Nolakoa izan behar du Elkarteak herritarrek euren burua eroso eta gogo onez ikus dezaten Elkartearen baitan?

Ikus dezagun, gure ustetan, nolako izan behar duen ELGOIBARKO IZARRAK aurretik esandako guztia bete nahi bada:

1. AUTONOMOA:

Elkarteak autonomia eta independentea izan behar du, inorekin inolako lotura organikorik gabe: Euskalgintzako beste erakundeetatik autonomia, alderdi politiko eta instituzioetatik autonomia, edozein ideologiatik autonomia, ...

Izan ere, guk eraiki nahi dugun hizkuntz komunitatean iritzi eta pentsakera ezberdineko herritarrak egongo dira. Askotan, bazkideen arteko lotura bakarra euskararenganako maitasuna izango da.

2. IREKIA:

Guk nahi dugun hizkuntz komunitatean herritar guztiek izan behar dute kabida, denak sartu behar ditugu, hori bai bakoitzari bere tokia zein den azalduz. Elkarte hizkuntz komunitate hori eraikitzeko lehen urratsa baldin bada, gurean ere denentzako lekua egon behar du.

Elkartearen helburuekin eta filosofiarekin bat egiten duen edozein herritari irikia izan behar du, inolako aurrebaldintzarik (erlijioso, sexista, ideologiko, ...) gabe.

3. ZABALA:

Autonomoak izan behar dugula esan dugu, inolako lotura organiko eta ideologiko gabeak. Baina honek ez du esan nahi Elkarteak globo baten barruan egon behar duenik, gizartearekin inolako harremanik gabe. Elgoibarko eta kanpoko edozein pertsona eta erakunderekin harremanak izateko jarrera izan behar dugu, edozeinekin elkarlanerako prest dagoen elkarte bat izan behar dugu. Harremanetarako prest egon alde batetik, eta batez ere harremanak guk eragin. Azken finean gure izakerak eta filosofiak kutsakorra izan behar du eta hori gainontzeko pertsona eta erakundeekin harremanetan egonda bakarrik lortuko dugu.

4. BAIKORRA:

Euskararen egoera eta etorkizuna aztertzerakoan, bi jarrera gailentzen dira guztien artean:

. Ezkortasuna: ez dago ezer egiterik. Euskara desagertzera kondenatuta dago eta alferrik dira ahalegin guztiak.

. Baikortasun faltsua: ez dago horrelako saiakeretan ibili beharrik. Euskara salbatuta dago, hor daude besteak beste, Eusko Jaurlaritza, EITB, ikastolak, gainontzeko eskolak, Egunkaria,... Lehen ez zegoen horrelakorik eta euskarak aurrera egin du. Orain dauden baldintzekin, nola ez da ba salbatuta egongo?

Gure jarrerak ezin du ez bata eta ez bestea izan. Euskara ez dago hondoa jota, baina salbatuta egoteko asko falta zaio. Gure jarrera baikortasun kritikoa da, hau da baikorrak izan behar dugu, neurri handi batean gure esku dagoelako euskararen eta euskaldunon etorkizuna, baina bada-kigu ez dela batere lan erraza izango eta lan asko egin beharko dugula. Beraz, errealitatea zein den jakinda ibiltzea komeni zaigu, bidean trabak eta zailtasun asko izango ditugula jakinda.

5. ELEANITZA:

Duela bospasei urte bigarren etapari hasiera eman genionean, gure laneko eta jarduneko hizkuntza euskara bakarrik izango zela idazten genuen, gure lokalean euskara bakarrik egingo zela alegia. Gaztelera ere erabili egin behar dugu, guk eraiki nahi dugun hizkuntz komunitatean erdaldunek ere tokia izango baitute. Gaztelera erabili egin behar dugu erdaldunei euskararen mundurako gonbitea luzatzeko. Gaztelera erabili behar dugu guraso erdaldunek euren seme-alabei zer eskaini nahi diegun jakin dezaten. Gaztelera erabili behar dugu ... erdaldunak euskarara erakartzeko eta erdaldunak Elgoibarren integratzeko.

6. NEUTRALA:

Eta berriaren hasieran hartutako erabaki garrantzitsuenetariko bat hau izan zela esatera ausartuko ginatke. Euskararekin eta kulturarekin zerikusirik edo loturarik ez duten gaiak ez dute tokirik Elkartearen, ez ditugu eztabaidatzen, Elkarteak ez du inolako jarrerarik hartzen ez eta iritzirik ematen ere.

Izan ere, Elkarteko bazkide guztiak iritzi eta pentsakera askatasuna dutenez, Elkarreak (bazkide guztien bilgunea izanik) ezin du bazkideak banatuko lituzkeen iritzirik eman edo jarrerarik hartu.

Zein iritzi izan behar du Elkarreak Gaztetxeari buruz? Gaztetxearen alde onak eta txarrak aztertzen hasi behar al du Elkarreak bere iritzia eman aurretik? Horretarako sortu al zen ELGOIBARKO IZARRA? Horretarako hartu al zen Elkarrea ez desagertzeko erabakia? Ezetxean gaude eta horregatik erabaki genuen horrelako gaietan Elkarreak parte ez hartzea. Bazkide bakoitzak askatasun osoa dauka Gaztetxeari buruzko iritzia izateko eta emateko, baina Elkarreak ez ditu horrelako gaiak aztertuko, bestelakoak baitira bere funtzioak eta helburuak.

Gizarteari dagozkion gai hauetan ez inplikatzek badakigu 'kalteak' ere ekar diezazkigukela: gizartetik urruti gaudela leporatuko digute, ongiaren eta gaizkiaren gainetik gaudela, ... Honetaz jabetuta ere, erabaki honek mesede kalte baino gehiago egingo digula uste dugu eta oraingoz horrela segituko dugu.

Baina euskarari lotuta dauden gaietan BUSTI egin behar da Elkarrea, bere iritzia eman behar du, nahiz eta bazkide guztiak bat ez etorri. Euskarari lotutako gaiak landu eta aztertu egin behar ditu Elkarreak, ondoren bere iritzia emateko, hala eskatzen zaionean behintzat. Elkarrearen zeregina erabaki edo jarrera hori gure helburuak betetzeko aproposena izan dela arrazoitzea izango da, bai bazkideei pertsonalki eta bai publikoki hala komeni dela irizten diogunean.

7. BERDINTASUNEAN ERAIKIA:

Berdintasuna hitz klabea da gu bezalako elkarte batentzat. Izan ere, hizkuntzen arteko berdintasunean oinarritzen dugu gure filosofia. Baina, berdintasunak ez dauka zentzua dimentsio honetan bakarrik. Gure nahia Elkarrea berdintasunean eraikitzea da.

Elkarrean ezin da goi eta behe mailako bazkiderik edo langilerik egon. Bakoitzaren funtzioak ondo zehaztu ostean, berdintasunean oinarritu behar dugu gure jarduna.

Elkarrearen funtzionamendua bertikala bada ere (bere aginte organuekin), bazkide guztiak dute euren iritzia eta aportazioak emateko aukera, bai Urteko Batzar Orokorrean eta bai eguneroko jardunean.

Halaber, begirunez jokatu behar dugu, bazkide bakoitzak besteari zor dion errespetuan. Begirunea baita ere Elkartetik kanpo dauden herritarrekin, begirunea Elkarrea errezeloz ikusten dutenekin eta begirunea, azkenik, Elkarrearen kontra daudenekin. Azken finean gure helburua ez da inor dagoen baino urrutirago bidaltzea, erakartzea baizik. Eta jendea erakartzeko ez da nahikoa norberak arrazoia edukitzea. Arrazoia duenak abantaila guztiak ditu bere alde eta jakin egin behar du lehenago edo beranduago jendea hurreratu egingo dela. Ziurtasun honek ematen duen konfidantzarekin, lasaitasunarekin eta begirunearekin zabaldu behar dugu gure mezua.

8.- INTEGRATZAILEA EDO BATERATZAILEA:

Elkartearen helburu nagusia Elgoibarren euskal hizkuntz komunitatea sortu eta sendotzea denez, Elkarteak indar bateratzailea edo integratzailea izan behar duela argi daukagu. Gainera, bateratzearen arrazoia euskara izango da.

Edozein pertsona eta erakunderekin harremanak izateko jarrera zabalaz gain, gurea bezalako gizarte plural eta sakabanatu batean gaudela konziente izanik, Elkartearen mezu eta jokamoldeetan 'gehiago dela batzen gaituena bereizten gaituena baino' lema gidaritzat hartuta jokatu behar dugu.

Hala, Elkartearen dinamikan sartuz gero behintzat, Elgoibarko Izarra GUNE BATERATZAILE izan nahiak motibatzen gaituela erakutsiz, beti saiatuko gara muina (euskara) alderdikeria, ideologia, motibazio partikular, etabar.en gainetik jartzen.

9.- GARDENA:

Elkarteak gardena edo transparentea izan behar du. Egiten ari garena herriarentzat eta herriaren alde baldin bada, herriak jakin egin behar du zertan ari garen. Ezin gara gauzak ezkutuan gordetzen ibili, nahiz eta jakin funtzionamendu egoki baten mesedetan dena ezin dela beti publiko egin.

10.- POPULARRA:

Elkarteak herritarra edo popularra izan behar du bere zentzurik onenean. Elitetik urrutiratu eta herrian sustraitu behar ditugu gure erroak. Kaletik hurrean ikusi behar gaituzte, eguneroko bizitzarekin lotuta, Elgoibarko gizartearekin eta honen bizimoduarekin eskutik helduta.

**NOLAKOA
IZAN BEHAR DU
ELKARTEKO
BAZKIDEAK?**

Eta bazkideek nolakoak izan behar dute? Elkarreak nolakoak izan behar duen badakigu baina, zer da Elkarrea bazkiderik gabe?

Pentsatu al dugu inoiz nolakoak izan behar duen ELGOIBARKO IZARRAko bazkideak? Ba al du garrantziarik bazkideen nolakotasunak?

Guk baietz uste dugu eta horregatik aztertuko dugu bazkideak nolakoak izatea komeni den.

Halere, ezaugarriok azaldu aurretik esan, aurreko atalean esan bezala, bai Elgoibarko hizkuntz komunitatean eta bai Elkarrean elgoibartar guztiek dutela tokia. Beraz, garbi gera bedi hasieratik, Elkarrearen helburuekin eta filosofiarekin bat datorren edozein elgoibartarrek duela tokia ELGOIBARKO IZARRAn, inolako diskriminaziorik gabe.

Azalpen hau garbi laga ostean, ikus dezagun batez ere zein ezaugarri (beste batzuen artean noski) bete beharko lituzketen bazkideek Elkarrearen jarduna benetan emankorra eta oparoa izateko:

. KONTZIENTZIA, KONPETENTZIA eta KOHERENTZIA linguistikoa uztartuko dituzten bazkideak behar ditu Elkarreak.

Ikus dezagun labur-labur zer esan nahi duen honek.

1. KONTZIENTZIA LINGUISTIKOA:

Kontzientzia linguistikoari buruz orain arte eman diren hamaika definizioak alde batera lagata, ikus dezagun zer den guretzat hizkuntz kontzientzia izatea:

. Euskararen EZAGUTZA, ERABILERA eta MOTIBAZIOA uztartzea izango da kontzientzia linguistikoa izatea.

Pertsona batek euskararekiko kontzientzia duela esateko, euskara ezagutu, erabili eta maitatu egin behar du. Baina zenbat ezagutu, erabili eta maitatu behar du? Kontzientziaren graduazioa horren araberakoa izango da, zenbat eta gehiago ezagutu, erabili eta maitatu, orduan eta kontzientzia handiagoa duela esango dugu. Ezagutzaren gutxieneko maila norberaren eguneroko bizitzan euskaraz ondo moldatzeko beste jakitean ezartzen dugu.

Baina garbi gera bedi hiru elementuak batera joatea ezinbestekoa dela hizkuntz kontzientzia izateko. Izan ere, ez dugu ezer egiten euskara asko jakin baina batere erabiltzen ez duten bazkideekin. Edo euskara asko maite baina erdipurdika jakitearekin konformatzen direnekin.

Beraz, hizkuntz kontzientzia duten herritarrak behar ditugu Elkarrean.

2. KONPETENTZIA LINGUISTIKOA:

Hizkuntz kontzientzia duen jendea baldin badaukagu, hurrengo ezaugarria pertsona hauek hizkuntz konpetentzia edukitzea da. Zer esan nahi du honek?

Euskararen normalizaioa zer den JAKIN behar du bazkideak lehenik eta behin. Elkarteak zer nahi duen eta zertarako ari den lanean jakin behar du. Zer lortu nahi duen jakin ostean, hau zela lor daitekeen ezagutzea izango da hurrengo pausoa. Egiten duguna zergatik eta zertarako egiten dugun jakin behar dugu, ezin gara itxuan ibili.

Amaitzeko, hizkuntz konpetentziari dagokio baita ere euskara egun dagoen egoeran zergatik dagoen jakitea, hizkuntzen eskubide unibertsalak ezagutzea, beste herrietako esperientziak ezagutzea etabar.

Beraz, bazkideek konpetenteak ere izan behar dute, jakin egin behar dute zertan eta zergatik ari garen lanean.

3. KOHERENTZIA LINGUISTIKOA:

Kontzientzia duen bazkidea konpetentea bada, azken ezaugarria gehitzea baino ez zaio falta: KOHERENTEA izan behar du. Euskararentzako onena nahi badu eta zela lor daitekeen baldin badaki, bi zeregin nagusi izango ditu bere aurrean:

. Berak EGIN eta besteei ERAGIN.

Hizkuntzari dagokionean koherentea izatea horixe da, euskararen alde norberak dakiena eta ahal duena egitea eta besteei erakustea eta eragitea.

...

Beraz, besteak beste, hiru ezaugarri nagusi hauek betetzen dituzten bazkideak behar ditu Elkarteak. Ezaugarri hauek dituzten zenbat eta bazkide gehiago izan, orduan eta errazagoa izango da Elkartearen helburuak betetzea.